

Gure enpresaren funtsezko baliabideak honako hauek dira, Itsasoan plastikoak hartuko/filtratuko dituen buia bat, jantziak prozesatzeko makinak, eta amaierako produktua lortzeko falta diren materialak hauen artean: kremailerak, hariak, botoiak eta tela.

Gu Tolosaldeko 27 urteko 5 gazte gara eta dagoeneko gure karrera eta ikasketak bukatu ditugu; Iraidek Itsas-biologiako ikasketak amaituak ditu eta master bat du, beraz itsasoko animalien bizitza hobetzen lagunduko digu eta horrez gain salmentarako eta antolaketarako dohain izugarria dauka eta honek gure enpresa aurrera eramaten lagundu digu. Jantziez Nahia arduratuko da, moda eta jostun ikasketak ditu eta txiki-txikitatik aritu da horretan, abilezia handia dauka. Buia sortzeaz Irati arduratuko da. Bera ingenialaria da. Bere unibertsitateko media altuena lortzeaz gain masterra atera zuen, irudimen asko du eta hortaz, itsasoko plastikoak filtratzeko buia berak sortu du. Leirek sare sozialak emango dizkigu, marketin ikasketak edukitzeaz gain, influentzer kontaktu asko ditu eta gurekin kolaboratu dezakete gure enpresari izen ona eta fama emateko. Hori gutxi balitz, Leirek ezagutza handia du web guneen sorkuntza eta erabileran beraz interneten gure produktuak erosteko aukera sortu du. Azkenik, Anek administrazioa eta diru kontuak eramango ditu, enpresa administrazioko ikasketak amaituak ditu eta dohain handia du horretarako. Hau guztia ondo joan dadin ordenagailu bat ere beharko dugu dena ondo antolatzeko, administrazioko kontuak eramateko eta diru kontuak ondo kontrolatzeko. Baita ere, makineria plastikozko materialekin arropa egiteko eta baita ere buila ekoitzeko. Bestalde, mugikor bat ere beharko dugu sare sozialak eramateko eta gure bezeroekin kontaktuan jartzeko. Hau guztia aurrera eramateko gure aurrezkietatik eta hainbat GKE-en eta gobernuaren diru laguntzak izango dugu.

Baliabide fisikoak: lokala, mugikorra, makineria ekoitzeko, hainbat material diseinatzeko eta arropak egiteko.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Iraidek dituen dohainak salmenta eta antolaketarako eta itsas animaliekiko duen informazio erabilgarria. Nahiaren jostun abileziak, Iratiren irudimen harrigarria eta azkenik, Leirek dituen marketinerako eta sare sozialetarako ezagutzak.

Finantza baliabideak: gure aurrezkiak eta gobernuaren eta GKE-en diru laguntzak.